


consonni

Danele Sarriugarte

beste zerbait



beste zerbait

Danele Sarriugarte Mochales idazlea eta itzultzailea da. Bi eleberrri –*Erraiak* (Elkar, 2014) eta *Azala erre* (Elkar, 2018)– eta zenbait kontakizun argitaratu, eta hainbat autoreren lanak euskaratu ditu (Angela Davis, Roland Barthes eta McKenzie Wark, besteak beste). Elkarrizketa sakonak egiten ditu hiru astean behin *Argia* aldizkariko «Jendeak» sailean, eta beste hedabide batzuekin ere kolaboratzen du tarteka, hala nola *Pikara Magazine* eta *Berriarekin*. Azken bi urteetan *Popperra*, *afterra*, *utopia* emanaldia eskaini du Miren Narbaiza MICErekin batera. Gaur egun teoria kritikoari eta kultur ikasketei buruzko *formaedukia* izeneko podcasta gidatzen du, Ibai Atutxarekin, Basilika plataforman.



Egilea **Danele Sarriugarte Mochales**
Edizioa **Iratxe Retolaza**
Zuzenketa **Itziar Diez de Ultzurrun**
eta **Izaskun Gracia**
Bildumaren diseinua **Rosa Llop**
Maketazioa **Olatz Goikouria Miñaur**
Azaleko irudia **Maider Alday**
Galizian inprimatua **Cosmos Gráfico**

consonni edizioak
Mirasol Kondearen kalea, 13, LJ1D
48003 Bilbo
www.consonni.org

Lehen argitalpena:
2025eko iraila, Bilbo

ISBN: 978-84-19490-55-1
Lege-gordailua: BI 00934-2025

Lan hau Creative Commons Aitortu-Ezkomertziala-
-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten
mende dago.

Testuen, edizioaren, itzulpenen eta irudien jabetza
egileei dagokie.

Lan honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailaren literatura-argitalpenetarako laguntza
jaso du. Liburu hau idazteko, Eusko Jaurlaritzaren Kul-
tura eta Hizkuntza Politika Sailak emandako dirulagun-
tza jaso du egileak.

consonni argitaletxea Bilboko San Frantzisko auzoko
kulturagune interdependente bat da. 1996az geroztik,
kultura kritikoa ekoizten dugu, eta, gaur egun, hitz
idatzia eta orobat xuxurlatua, entzuna, isildua eta
deklamatua da argitaletxearen apustua: hitza ekintza
bihurtua, hitza gorputz bihurtua. Bizi garen munduan
eragitea eta hark ere gugan eragitea bilatzen dugu.
Letra xehez idatzia eta aldaketa etengabea, izaki
androgino eta polizefaloa da consonni, bi superbo-
tere dituen: feminismoa eta entzumena. Distantzia
laburretan jokatzeko dugu.

beste zer bait

Danele Sarriugarte



Aurkibidea

0_INTRO 17

Asmo-adierazpena_1 19

Intro. (letra xehez_0) 20

1_ETXEA 23

letra xehez_1: haragia eta porlana 25

lekukotasuna_1 33

genealogia_1 39

lekukotasuna_2 42

Afektuen bibliografia_1 51

Iritzia_1 55

2_AMORRUA 57

Afektuen bibliografia_2 59

letra xehez_2: bost urtebetetze 62

Iritzia_2 68

Afektuen bibliografia_3 70

lekukotasuna_3 72

genealogia_2 79

Iritzia_3 82

3_DESIRA 85

letra xehez_3: ulertzen? 87

letra xehez_4: festa 92

Iritzia_4 99

afektuen bibliografia_4 101

lekukotasuna_4 103

4_DESJABETZEAK 111

Gida-hitzak_1: Virginie Despentes 113

Aitortza_1 115

Deialdia_1 119

Iritzia_5 124

5_JABETZEAK 127

letra xehez_5: etorkizuna 129

lekukotasuna_5 131

Gida-hitzak_3: Carmen Maria Machado 136

Deialdia_2: Proiektuaren azalpena 138

Deialdia_3: I. eranskina. Asmo-adierazpen linguistikoa 147

Gida-hitzak_4: Virginie Despentes 154

letra xehez_6: tori arkumea 156

genealogia_3 161

6_BESTE NORBAIT 165

letra xehez_7: gora dantza behera 167

7_EPILOGOA 173

Asmo-adierazpena_2 175

Bibliografia 177

Esker ona_1 181

Esker ona_2 183

baina nik badaukat
beste zer bait
argitzen dit gogoa
zorroztu ere bai
eta ikusten dut banaizela
miseriatik at bizitzeko gai
-J Martina

Oharra

1. Liburu hau hainbat materialez osatuta dago, tartean, besteren hitzez. Errazago identifikatzeko, kakotx artean eta aurretik asterisko batekin markatuta agertzen dira (*«»). Erreferentzia bibliografiko zehatzak liburuaren amaieran bilduta daude.

2. Honako hau idazketa-lan bat da: errealitatearekiko antzekotasun oro kasualitate hutsa da.

0_INTRO

Asmo-adierazpena_1

*«Proiektu berri bakoitzaren hasiera beti zen jarraipen bat».

–Kate Briggs

*«Liburuaren izenburua sentipen batetik zetorren, eta sentipen hori zeharkatuz idatzi nahi nuen. Idatzi nahi nuena, egiaz, nire orainaldia zen, gauza ezinezkoa, itxuraz. Nola izan liteke paragrafoa egun, edo eguna paragrafo? Baina maiz, ezin nintzen gelan existitu, ezta paragrafo honetan ere, orain. Beti distraiturik suertatzen nintzen».

–Kate Zambreno

*«Norberak zerbait idatzi ostean, gizarteak ez dizu eskatzen gauza berriak idazteko, ezpada idatzi duzun hori kudeatzeko. Hau da, zeure obra kudeatzeko, obra hori errepikatuz. [...] Beharrezkoa da, bizitzako une batean, lehen aipatu dudan adinarekin zerikusia daukan une batean, zer egingo duzun erabakitzea: kudeaketari ekin, ala berrikuntzari, ekoizpenari».

–Roland Barthes

intro

(letra xehez_0)

halako batean ohartzen zara hauskorrak direla ordura arte zeure buruaren baliokidetzat jotako hizki larriak –ideologiak, identitateak– eta edozer gauza egiten hasten zara. sentimendu asko harrotzen zaizkizu –kontraesankorrak– ordura arte tinko heldutako zerarekiko: atxikimenduak hor segitzen duen arren, amorrua ere sortzen dizu; ezin duzu parean ikusi ordura arte begiak pizten zizkizuna, eta diozu: zein naiz ni, ez baldin banaiz orain arte nintzena –bikotekidea, militantea, heteroa, profesionala– eta esaten duzu: zer egingo dut nik zu gabe–politika, heterozuentasuna, lana, jabetza–, galduta zaude, ziurtasun berrien bila jotzen duzu

afanatuta, ez zara arnasa hartzeaz ahazten automatizatu samar daukazulako, eta begiak ixten dituzu eta pentsatzen duzu: *gezurra zen dena, engainatu egin naute*. uko egiten diozu aurreko sinesmenari, eta berri batera konbertitzen zara, aurrekoari eusten zenion grina berarekin heldu ere; edo, bestela, begiak ixten dituzu eta pentsatzen duzu: *egia zen dena, hau proba bat da, argi ikusten dut, ni ez naute engainatuko*. beldur handiegia ematen dizu amildegiak eta grina bikoiztuarekin heltzen diozu fede zaharrari.

baina badago hirugarren aukera bat. beti dago hirugarren aukera bat –hirugarren aukera bi, hirugarren aukera hiru, aukerak espektro bat dira–: tarteka begiak ixten dituzu, tarteka ireki, saiatzen zara ahalik eta luzeen mantentzen zabalik, eta pentsatzen duzu, *egia zen dena, gezurra zen dena*. hemendik aurrera, zer?

1_ETXEA

letra xehez_1

haragia eta porlana

gertakariak

luzaroan beldur atabikoa eman dit idealista.com-ek. luzaroan ez naiz bakarra izan horretan, eta giro askotan, gainera, nire fobiak ez dit ekarri batere buruhausterik; kontrakoa. inork ez du gaia aipatzen aukera gisa, soilik espekulazioaren kontra jarduteko. harik eta beste hizpiderik ez dugun arte.

berak tableteko bilatzaileko menuan iltzatuta dauka lasterbidea: ordu alferretan begiratzen du, denbora-pasan. ez da ezeren bila ari, ez behintzat ezer konkreturen bila; gehiago da fantasia-iturri bat, porno-modu bat: eskura ez dauzkan iragarkiak begiratzen ditu.

konfinamendu-garaia da eta ordu alfer asko dauzkagu, porno-premia biderkatua. ohean elkarren alboan etzanda gaudela metro-karratuak, kale-izenak eta hipoteka-kalkulagailuak aipatzen dizkidanean, aurpegia desitxuratzen zait. nire erreakzioak grazia eta ulertu ezina eragiten dizkio aldi berean, hori uste dut. harrigarria egiten zaio gauza batzuetarako hain lista izanik nola itotzen naizen beste batzuetan –baina ez al gara hori, espezie gisa?–.

ez gara elkarrekin bizi; bikotea gara. bera lagun baten izebaren etxean bizi da, lagunarekin, eta ni, berriz, etxejabe ezezagun batenean: bizigarritasun-baimenik gabeko lokal bat, horrela esanda dirudiena baino pitin bat hobea errealtatean. auzo berean gaude biok, kale paraleloetan, eta horrek ahalbidetu du gure harremanaren –balizko– bidegurutze bat aise gainditzea erabakirik hartu gabe: tarteka batenean tarteka bestearenean egoten gara itxita.

laster aldatuko da egoera hori, pixka bat bat-batean. ez-tanda egingo dut. ezinegonak, berez, aspalditik datoz, baina premenstrualitate bereziki bortitz batek, braust, ez dit utziko segundo bat gehiago hor irauten. harrigarria badirudi ere, gaingiroki behintzat eztandak ez du zerikusirik beraren eta bion harremanarekin, baizik eta konturatzearekin ezen modako auzoko ezkaratz honetan bizi naizenetik daukadan horterria eternala, egiaz, umeltasunak eragindako sinusitis bat dela. idealistan sartuko naiz estreinako aldir.

lehen etxea ikusi ahal izateko, higiezin-agentziakoek pasabaimen bat egin didate, jaurlaritzak finkatutako ordu-tegietatik kanpo egin baitugu hitzordua. bigarrena goizeko

11etan ikusi dut: esaneko eta arauzale. huraxe erosi dut. bera harrituta dago. miretsita akaso. oso lista naizela iruditzen zaion momentu horietako bat.

jendeari kontatu diot. goizetako eta batez ere iluntzetako paseoen garaia da. argiago edo sotilago adierazten didate, baina jendea flipatzen ari da, oro har. hipotekadunek, dagozkien galderak eginda, ontzat jo dute inbertsioa, nahiz eta beren kautarako pentsatu auzoa urrun samar dagoela (aukeran), ez dela beren auzoa (aukeran), eta berek, berez, ez liratekeela inoiz joango hara –hipoteka-ahalmen handiagoko jendea da, batez ere–; beste zenbait –okupak; etxerik erosteko modurik inoiz izango ez dutenak; etxebizitza-kooperatiba kolektiboak eraikitzeko ahaleginetan dabiltzatanak; hipotekak kaltetutakoen asanbladetakoa; turistifikazioaren kontra egoteaz aparte turistifikazioaren kontra ekiten dutenak– zer esan ez dakitela geratzen dira, eta eskuzabaltasunez entzuten didate, inork haur bat izango duela aipatzen didanean neronek erakutsi nahi izaten dudana keinu atsegin-asmokoa aurpegian.

nire neska-lagunik aspaldikoenak (exex) zuzenean galde-tu dit ea komenigarria iruditzen zaidan halako erabaki handi bat hartzea krisi potente baten erdian –pandemiak ekarritako krisi orokorra + premenstrualitate bortitzak agerian utzitako krisi pertsonala–. galdera moduan planteatzen saiatu da, baina argi dago ez zaiola komenigarria iruditzen.

konfinamendua hasi aurreko astean dorrea lau egunez segidan atera zitzaidala erantzun diot: *badakizu zer esan nahi duen: norberaren bizitza azpikoz gora jartzen duten gertakari*

kolektiboak! harrezkero, beldurtuta, egunero tarot-karta bat ateratzeari utzi diodala ere aitortu diot. muturra okertu du, bere mutur-okertze mitikoa: mesfidatia bezain maitagarria. dena den, virgo eguzkia naiz, eta badaki: kontrolatzailea, ezer izatekotan.

exex ez da ohartzen, baina idealistan lehendabiziko aldiz neure kasara ausartzearekin batera zerbait ulertu dut, benetan ulertu, edo, behinik behin, justifikatuta geratu da nire azken dozena-erdi urtetako obediencia kuestionatu gabea; justifikatuta geratu dira tarte horretan –nire helduaroaren hasierako urteetan– egin ditudan ergelkeriak, hala nola faktura mordo bat kobratu ahal izateko egin beharreko guztia egin, eta enkarguak bata bestearen atzetik onartu, eta gaineratik kendu, torlojuak egiten ari banintz bezala –konparazio paradigmaticoa–, nahiz eta ustez langile kreatiboa izan, eta nire beste pasio guztiak alde batera utzi, eta gastuak ordaintzeko behar nuena baino puskaz gehiago irabazi eta irabazten nuena baino gutxiago gastatu, eta, horretan guztian ari nintzela, bidenabar, exexekin neukan harremana –eta beste asko– bolada batez pikutara bidali.

horri guztiari esker, higiezin-agentziakoarekin bigarren hitzordua egin eta hiru egunera aurrekontratua sinatu dugunean, etxearen salneurriaren % 20 ordaintzeko adina diru daukat kontu korrontean, eta gainerakoa laboralak mailegatuko dit, interes-tasa finkoarekin.

aurrekariak

demagun gurasoek beren betiko pisua saldu zutela nik neuk etxea erosi baino zertxobait lehenago. demagun hazi nintzen pisua saldu zutela gurasoek. demagun familiako etxe bat zela. demagun nire gurasoena izan aurretik nire aitona-amonena izan zela: ni neu ez ezik, aita ere hazi zen hor. demagun etxe berriago batera aldatzeko saldu zutela, zahartzen hasiak zirelako ustez (eskailerak, etab.), baina demagun, beharbada, amari astuna egin zitzaiola betidanik ama-aitaginarreben itzalean bizitzea eta, jada hilak ziren arren, arantza moduko bat kendu zuela beste norabait joanda. demagun autoarekin antzeko zeratxo bat daukala, demagun emakumeen autonomiarako ezinbestekoa dela uste duela, eta, horregatik, 18 urterekin karneta ateratzera behartu ninduela, zera, eskolak ordaindu zizkidala, berari gertatu zitzaiona gerta ez zekidan. demagun, berari, karneta atera eta gero, bere autonomiaren gailur horretara iritsi eta gero, gertatu zitzaiola ez zuela batere erabili. demagun, karneta ateratzeaz aparte, gizon batekin ezkondu zela, eta umeak izan zituela, eta bolada batez etxetik kanpo lan egiteari utzi ziola umez arduratzeko, eta, ez zuela izan, bada, autoa berak gidatzeko premiarik. demagun kontakizun higitu bat dirudiela, baina gertatu egin zitzaiola. demagun nik neuk ere, nahiz eta 18 urterekin karneta atera, pare bat aldiz erabili eta orduz geroztik ez dudala berriro ukitu bolanterik. demagun ez nuela behar. demagun nire bizitza antolatu dudala behar ez izateko. demagun etxeko kideen arteko zauri guztiak kristalizatzen direla gidatzearen kontu horretan: gu-

rasoen artekoak, nire eta aitaren artekoak, amaren eta nire artekoak, ahizpa txikiarenak gu denokin. demagun behingoz gidatzen hasi behar nuela erabaki nuenean exexi esker izan zela. demagun orduantxe atera nintzela armairutik amaren aurrean, betiko etxeko sukaldean. demagun, egiaz, neska batekin nenbilela esan niola. demagun tristatu egin zela. demagun ni zorionsua izatea nahi omen zuela eta horrek [bollera izateak, armairutik ateratzeak] bizia zailduko omen zidala. demagun neska-laguna ni baino zaharragoa al zen galdetu zidala. demagun, hala ere, bere alaba omen nintzela, bere alaba izango omen nintzela beti, eta bera nire ama, eta beti maite izango ninduela kontuak kontu. demagun egia dela, gutxi gorabehera. demagun alabok kulpabilitatearen kontua kudeatu behar izaten dugula. demagun beren alabengandik klase- eta politizazio-arrakala sakon batek bereizten dituen amek ere kudeatu behar dituztela barrenean sortzen zaizkien eta haietarako inork prestatu ez zituen sentimendu kontraesankorrak. demagun: eta aita, non dago? demagun, betiko etxea saldu egingo zutela esan zidatenean, harritu egin nintzela, eta uste nuela atximurka egingo zidala bihoztzean, nire iragana desagertuko zelakoan. demagun teorian hori sentitu beharko nukeela iruditzen zitzaidalako pentsatu nituela gauza horiek. demagun halako kontuak kontatzen dituzten hamaika kontakizun daudela ziur aski nire inkontziente kolektiboan pilatuta. demagun, ordea, istorio hori ez dela nirea. demagun batzuek bai nahi izaten dutela atzean utzi iragana. demagun, ez etxe hartan bereziki, baina bai bertan bizi izan nintzen urteetan, iruditzen zaidala ez nin-

tzela guztiz ni. demagun zoritxarrekoa izan nintzela haurtzaroan eta nerabezaroan, gurasoek ahal zutena egin zuten arren, eskura zituzten tresnekin. demagun leku latza zela ikastola. demagun men egin nuela kanpoan utz ez nintzaten. demagun norbere burua ezkutatzek edo moldatzek edo makurtzek berekin dakarrela ez bereziki ondo eta lasai sentitzea norbere buruarekin. demagun betiko etxea jabez aldatu aurretik betiko etxea agurtzera joan beharko nukee-la uste nuela. demagun hala zegokiola iruditzen zitzaidala. demagun azkenean ez nintzela joan. demagun egunak pasa zirela, demagun nire bizitzan buru-belarri sartuta nengoela, demagun une horretan zeregin garrantzitsuagoak nituela. demagun nire inkontzienteak erabaki zuela, erabaki gabe, nire partez. demagun ez naizela damutzen. demagun ez didala ausiki egiten bihotzean. demagun ohera sartzen naizenean eta kontu mingarriak akordatzen zaizkidanean inoiz ez zaidala burura etortzen etxe hari agur esan ez izanaren zera. demagun ez naizela gogoratu ere egin orain arte. demagun mudantzan ere ez niela lagundu. demagun nire gauzak ere bazirela tartean. demagun, alde horretatik, guraso guri emanak izan direla, ustez gurasoek izan behar duten bezalakoak. demagun alde horretatik ez digutela ez zegokigun erantzukizunik inokulatu, utzi digutela ume izaten. demagun erantzukizun bakarra genuela: ikastea eta berek baino kapital kultural, sinboliko eta ekonomiko handiagoa metatzea, gorpuztea. demagun baserria eta *labranza* atzean utzitakoan arbasoek hasitako gorabide sozialean jarraitzeko besterik ez zigutela eskatzen. demagun hala egin genuela, hein batean behintzat,

ahal izan genuen neurrian. demagun *hor noraezean 90eko uzta*. demagun agerian geratu zela ez gorabide soziala ez progresoa ez zirela egia. demagun 2000ko hamarkadaren amaiera. demagun higiezinaren burbuila. demagun petrolio finitua. demagun, orain, beren etxe berrian bizi direla gurasoak. demagun gela bat daukatela niretzat. demagun ez dela nire gela, erabat-ni izan ez nintzen gela; beste gela bat baizik, zentzu materialean. demagun gela berria karga afektiborik gabeko gela bat dela. demagun gela zaharretik lehen aldiz beste gela batera joan nintzen unetik aurrera, tartean joan-etorri gehiago izan baziren ere, bide bati ekin niola, betiko etxean bizi izandako ni-arrotza ni-neu bihurtzeko. demagun, pentsatzen dudanean ez naizela hara inoiz gehiago itzuliko, pena ez, baizik lasaitua hartzen dudala. demagun nostalgiaren kontrakoa sentitzen dudala. demagun, gela hartatik, batik bat, halakoak oroitzen ditudala: bakardadea; isiltasuna; irakurketaren bidezko disoziazioa. demagun: gurasoak lanean eta ahizpa askoz gazteagoa. demagun, orain, beharbada, behingoz besarka dezakedala neskato hura, eta aurrera segi.

Azaleko irudia

Maidar Alday Parra, ikasketaz zaharberri-tzailea eta kontserbatzailea, diseinatzailea eta ilustratzailea, grabatuko teknikak dakizki eta batzuetan praktikara daramatza. Bi astero kolaboratzen du Euskadi Irratiko *Baipasa* saioko «Whatever» tartean, edozer esaten. Ofizioz irakaslea eta autoekoizlea. Afizioz lotia, jatuna, dantza eta musikazalea, *performerra*. Batzuentzat laguna, besteentzat maitalea; hiru pertsonarentzat izan da alaba, bakarrarentzat tia eta prima arteko hibridoa. Etsai aitorturik ez. Dena ok (momentuz).

Munduaren sorlekua bildumak bizitza pentsatzeko, sentitzeko eta adierazteko beste modu batzuk arakutzen ditu. Esanahi berri bat ematen diogu Courbeten margolan ezagunaren izenburuari, begirada feminista eta ironiko batetik, zientziaren, ekonomiaren, kulturaren eta lurraldearen arteko harremanean sakontzeko. Errealitateak espekulatzeko, fikzionatzeko eta diseinatzeko literatura. Zurrunbiloan murgilduta, ideia kutsakorrak aplikatzen eta hasieraren teoriak aktibatzen ditugu.

Aholkulari-taldea

Lagun baten urtebetetze-bazkari batean sortu zen bilduma hau, oharkabean, beste ahots batzuk itzultzeko eta argitaratzeko grinak bultzaturik. Hasierako espirituari leial izan nahian, edukien gaineko aholkulari-talde bat osatu genuen, ez aditu-batzorde murriz bat, baizik eta iritsi nahi genuen komunitate zabal eta askotarikoa islatuko zuen talde bat. Hala, elkarte ez-sekretu bat eratu genuen, ezagutzak partekatzeko eta haien proposamenak entzuteko. Haietariko batzuk bilduma honetan argitaratzen dira, edo beste batzuetara egiten dute jauzi; beste batzuk ganbaran gordeta geratzen dira; beste batzuk ez dira sekula izango. Zuetariko askok ematen diguzuen babes eta aholkularitza eskuzabal eta sarritan informal hori aitortu nahi dugu. Beste inspirazio-iturri batzuen artean, 2025an honako pertsona hauek osatu dute edukiak proposatu dizkigun talde malgu hori:

Ixiar Rozas, Maielis González, Leire Milikua, Helen Torres, Maria Ptqk, Blanca de la Torre, Teresa López-Pellisa, Elisa McCausland, Rosa Casado, Pikara Magazine, Arantxa Mendiharat, Arrate Hidalgo, María Navarro, Remedios Vincent, Daniel García Andújar, Verónica Gerber Bicecci, Iván de la Nuez, Alicia Kopf, Maria Colera, Cabello/Carceller, Cristina Ramos González, Rosa Llop, Claudio Iglesias, Constantino Bértolo, Tamara Tenenbaum, Tania Pleitez, Marta Rebón, Rakel Esparza, Lilian Fernández Hall, Mariano Villarreal, Jorge Carrión, Beñat Sarasola, Katixa Agirre, Goizalde Landabaso, Uxue Alberdi, Carlos Almela, Txani Rodríguez, Mónica Nepote, Laura Casielles, Itzea Goikolea Amiano, Ana González Navarro, Mercedes Melchor, Luz Gómez, Georgina Monge López, Leire Bilbao...

www.consonni.org

Kultura kritikoa ekoizten eta argitaratzen dugu

Munduaren sorlekua

beste zerbait Cosmos Gráfico inprimategian (Cambre, Galizia) 2025eko abuztuaren 20an inprimatu zen, eta egun horretan jaio ziren, besteak beste, Robustiana Armíño (1821), erromantizismo garaian argitaratu zuten emakumezko olerkari bakanetakoa, bere garaian isilarazia eta ahaztua; Bolesław Prus (1847), Polonia okupatuan desberdintasun sozialak salatu zituen eleberrigilea eta kazetaria, *La muñeca* lan ospetsuaren egilea; Misiem Yipintsoi (1906), tailandiar margolaria eta eskultorea, arte modernoaren aitzindaria eta emakume asiarrak artearen alorrean Europa mailan trebatu ziren lehenetarikoa; Koldo Mitxelena (1915), euskararen batasunaren sustatzailea eta euskal kultura berpizteko borrokalari nekaezina; Miriam Colón (Ponce, 1936), aktore eta antzerki-sustatzaile puertorricarra, Estatu Batuetan hizkuntza eta identitate latinoen ordezkari garrantzitsua; eta Brenda Agard (1961), argazkilari, artista eta poeta beltz britainiarra, BLK Art mugimenduaren eragile nagusietako bat, bere irudiek arrazakeriaren eta sexismoaren aurka egiten baitute ikuspegi beltz eta feminista batetik. Beste hainbat hasiera-aktibatzaileen artean, hauek aipatzearren.